

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA

**FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**

HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

www.cineyderechoshumanos.com

GIZA ESKUBIDEEN XI. ZINEMALDIA. Donostia

2013ko apirilaren 19tik 26ra

“FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA”

GAZTE EPAIMAHAIA

2013ko apirilaren 19tik 26ra bitartean Donostiako Giza Eskubideen XI. Zinemaldia izango da, Donostiako Udalak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bitartez, eta Donostia Kulturak antolatua.

Giza Eskubideen Zinemaldiak, mundu osoan gertatzen diren giza eskubideen urraketekiko, herritarren kontzientzia kritikoa eragin nahi dio, baita zenbait balio indartu eta lau haizeetara zabandu ere: bizikidetzeta, justizia, elkartasuna, askatasuna...

Aurreko urteetan bezala, Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa ere izango da; eta hartara film laburrak —dokumentalak zein fikzio lanak— aurkeztuko dira, hainbat herritatik eta nazioarteko zinemaldi ospetsuetatik etorriak.

Gazte Epaimahaiaren ardura izango da lehiara aurkeztutako film labor guztiak ebaztea, giza eskubideen gaineko sentsibilizazioa eta zinemagintzaren kalitatea kontuan izanik. Gazte Epaimahaiak film laborrik onenari 3.000 euroko saria emango dio.

Epaimahaikide aritzeak **UPV/EHU eta DEUSTUKO unibertsitateetan aukera libreko unibertsitate kredituak** lortzeko aukera ematen du. Gehienez 30 ordu.

IZENA EMATEA


Izena emateko epea **2013ko martxoaren 17an** amaituko da.

Izena emateko helbide elektronikoa:

- www.cineyderechoshumanos.com
- <http://www.facebook.com/cinederechoshumanos>
- www.sansebastian.org/bakearenetxea.com

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea Aiete pasealekua, 65. 20009. Donostia. 943 48 19 75.

Martxoaren 18an izena emandako pertsonen artean zozketa egingo da. Aukeratua izan diren edo itzarote-zerrendan aurkitzen diren komunikatuko zaie.



Giza eskubideak / Derechos humanos / Human rights
Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Casa de la Paz y los Derechos Humanos
The House of Peace and Human Rights
Aieteko Jauregia • Aiete Pasealekua, 65
20009 Donostia / San Sebastián (España)
tel (34) 943 481 975 • fax (34) 943 481 778
cinederechoshumanos@donostia.org

Zine programazioa / Programación cinematográfica / Film program
Donostia Kultura • Reina Regente, 8
20003 Donostia / San Sebastián (España)
tel (34) 943 481 157 • cinema_cinema@donostia.org

donostiakultura.com


Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián


DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIÁN


GAZTE EPAIMAHAIA OSATZEKO BALDINTZAK

- **18 eta 30 urte** bitartean izatea.
- Zinemaldia hasi baino egun batzuk lehenago*, **azalpenak jaso eta behin betiko izena emateko saio batera joatea; non 16:30etako eta 22:30etako saioetako film laburrak proiektatu eta bozkatu beharko dituzten.** Lau bat ordu iraungo du (film laburren iraupenaren arabera). Ezinbestekoa izango da aurretiazko saio honetara agertzea epaimahaikide izan ahal izateko. Agertzerik ez duten pertsonak epaimahaikide izateko eskubidea galduko dute.
- **Apirilaren 19tik 25ra, Victoria Eugenia antzokian, 19:00etan izango diren saioetara agertu, lehiaketako film laburra eta luzea ikusi eta geroko elkarrizketa entzutea.** Saio bakoitza 3 bat ordu irautekoa da (laburmetraia, luzemetraia eta solasaldia. Elkarrizketaren ondoren, hautestontzia ezarriko da, film laburrak bozkatzeko botoak sartu ahal izateko.
- Zinemaldian bestelako jarduera osagarriak —hitzaldiak, tailerrak edo mahai inguruak— ere programatu daitezke, eta halakoak ere baliagarriak izan daitezke aukera libreko kredituak lortzeko.
- Gazte Epaimahaiko kide moduan parte hartzeko konpromisoak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar.

EPAIMAHAIKIDEEN ESKUBIDEAK:

- Zinemaldiko antolatzaileek egindako **ziurtagiri** bat jasotzea, egindako jarduera eta hartan emandako orduak adieraztekoa. Gerora, unibertsitate bakoitzari dagokio aukera askeko kredituak balioztatzea, eta ematea. ikasleek eskatzen badituzte. **UPV/EHUn graduren bat ikasten dutenek ezin izango dituzte kredituak eskuratu.**
- **Doan** ikusi ahal izatea Giza Eskubideen XI. Zinemaldiko 19:00etako saio guztiak, eta 16:30etako eta 22:30etako saioetarako bina sarrera eskuratzea.
- Donostiako Giza Eskubideen XI. Zinemaldiko **katalogoa eta programa** eskuratzea.
- Abonu bat eskuratzea 2013ko Fantasiatzko eta Beldurrezko XXIV. Zinema Asteak Victoria Eugenia antzokian egingo dituen saioetarako.
- Epaimahaikideek, gutxienik jota, 19:00etako **saioen % 80-tara joan beharko dute.** Bestela, ez dute aipaturiko kontraprestaziorik jasoko, ezta hurrengo zinemaldietan epaimahaikide izango ere.

* Aukeraturiko epaimahaikideei Zinemaldi aurreko bilkura noiz izango den adieraziko diete.



Giza eskubideak / Derechos humanos / Human rights
Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Casa de la Paz y los Derechos Humanos
The House of Peace and Human Rights
Aieteko Jauregia • Aiete Pasealekua, 65
20009 Donostia / San Sebastián (España)
tel (34) 943 481 975 • fax (34) 943 481 778
cinederechoshumanos@donostia.org

Zine programazioa / Programación cinematográfica / Film program
Donostia Kultura • Reina Regente, 8
20003 Donostia / San Sebastián (España)
tel (34) 943 481 157 • cinema_cinema@donostia.org